

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

1366

AGINDUA, 2025eko martxoaren 14koa, Segurtasuneko sailburuarena, langile bat Segurtasun Saileko behin-behineko lanpostutik kentzea xedatzeko dena.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 30.5 artikuluan ezarritako aurreikuspenak aplikatuz, ondoren zehazten den kargu-uztea sinatzen dut:

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.- Juan Félix Naberan Ozamiz jauna, kalitatea kudeatzeko prozesuak ezartzeko aholkulariaren kargutik kentzea (5283 kodea, 1 dotazioa, zuzendari maila), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.- Kargu-uzteak 2025eko martxoaren 17an izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.- Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 14a.

Segurtasuneko sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.